BALDINTZAK ETA ERANTZUNKIZUNAK

Jakinpean nago eta onartzen dut:
1. Martxa trafiko irekiko bide publikoetatik irauten duen aurretik zehaztutako ibilbide ziklista da eta txango personal bezala hartuko dut.
2. Martxaren txango pertsonalaren izaera ezagutzen eta onartzen dut.
3. Proposatutako ibilbidea zehazteko xedearekin ibilbide-orria jaso dut.
4. Ekitaldi honetan txangoaren araudiaren kopia eman didate.
5. Araudiaren edukia ezagutzen dudala adierazten dut, eta hau bere osotasunean onartzen dut.
6. Norgehiagokatik at gelditzen den txango pertsonala dela ezagutzen dudala adierazten dut (antolatzaileek adierazitako tartean izan ezik).
7. Proba trafiko irekiko bide publikoetatik izango dela ezagutzen dudala adierazten dut.
8. Trafiko irekiko proba honetan parte hartzeagatik egon daitezkeen arriskuak onartzen ditut.
9. Bide-Segurtasun legeko arauak betetzeko konpromisoa hartzen dut, nire segurtasuna, gainontzekoena eta bide publikoko jendearena zainduko ditut.
10. Antolatzaileak (Biktor Andueza Elia, Pirenaica kluba, klubaren presidentea, klubaren zuzendaritza-batzordea, antolatzaileekin harremana duten edozein kirol-elkarte edota persona fisikoa edo juridikoa, adibidez, Irati Xtrem Elkartea, Otsagabiko Udala eta Mendixut aldizkaria) kirol-istripuengatik edo trafikoagatik sortutako edozein istripuaren erantzukizunetatik salbuesten ditut.
11. Aurretik aipatutakoak, osasun kontuengatik, probagatik egin beharko dudan esfortsu fisikoagatik izan daitezkeen arriskuetatik salbuesten ditut, hauek nire gain hartuko ditut. Proba egiteko nire burua gai ikusten dut.
12. Proban parte hartzearen arriskuak ezagutzen ditut:
- Probaren ibilbidetik antolatzaileak ez diren kotxeak egongo dira
- Kotxe hauek normaltasunez ziklisten artean ibiliko dira.
- Kotxeak nire norantzan eta kontrako norantzan topatuko ditudala ezagutzen eta onartzen dut.
- Arreta handitu beharko dudan tarteak daude.
- Nire buruari eta besteei kalterik ez eragiteko malda luzeetan nire abiadura motelduko dut.
- Segurtasun-baldintzak betetzen ez dituzten tarteak daude. Hauetan edozein kalte gertatzen bada erantzukizuna nirea izango da.
- Kirol-istripua gertatzeko probabiltatea dago, beste partaideei sortarazi diezaiekedan istripuaren erantzukizuna nire gain hartuko dut.
- Hirugarren persona bati sortarazi diezaiokedan istripuaren erantzukizuna nire gain hartuko dut.
- Abereak, etxeko animaliak edo animalia basatiak eta hauen hondakinak egon daitezke.

13. Antolatzaileei nire itxura uzten diet, beraz, antolatzaileek edo haiek adostutako enpresek argazkiak erabili ditzakete, bai komunikabideei utziz bai salmentan jarriz.

LOPD KLAUSULA

PIRENAICA KLUBAk eta IRATI XTREM Elkarteak Izaera Pertsonaleko Datuen Babesaren araudia betetzen dela zirutatzen dute, eta horrela, 15/1999 Lege Organikoarekin bat eginez, sinatzaileak bere datuak bi entitateko fitxero automatizatuetan sartzeko, eta administrazio eta komertzio kudeaketak egiteko eta beste jarduetarako datuak erabiltzeko baimena ematen du.
PIRENAICA KLUBAren eta IRATI XTREM Elkartearen pribatasun-politikak sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta oposizio eskubideak ziurtatzen ditu, gaur egun legeak dioen bezala,helbide honetara bidalitako idatzi baten bidez: PIRENAICA KLUBA, Garcia Lorca kalea 10 • 31160 Orkoien (NA), fitxeroaren arduraduna PIRENAICA KLUBA izanik.
Sinatzaileak PIRENIACA KLUBEko eta IRATI XTREM Elkarteko barne kudeaketa eta administraziorako bere datuak erabiltzea onartzen du. Halaber, sinatzaileak PIRENAICA KLUBAk edozein produktu, kudeaketa o zerbitzuaren informazioa bidaltzea onartzen du. Onarketa hauek beti izaera ezeztagarria daukate, ez atzeraeraginezkoa, Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 6 eta 11 artikuluek dioten bezala.